

Oñatik gaztetxoentzat ipuin saioak eskainiko ditu

Kontaketak gaur eta etzi izango dira eta panpin bat nola egin ikasiko dute

Oñati. Oñatiko udal liburutegiaren eskutik, zortzi eta hamar urte bitarteko hurrei zuzenduta ipuin kontaketak izango dira aste honetan. Saioek tailer formatua izango dute eta gaur eta ostegunean eskainiko dituzte, 18.00etatik aurrera. Era honetan, gaztetxoek ipuinak entzuteaz gain, aktiboki parte hartu ahal izango dute, panpina bat eginez.

Ekitaldia Anthony Brown-en Kezkamuxelak liburuan oinarrituta dago eta azken lan hau, aldi berean, Guatemalako Quitapenas izeneko panpina batean. Herrialde horietako umeek ohal zatiekin, txotxekin eta hari pusketekin egiten dute papin hau eta, gauean beldurra izaten dutenean, Quitapenas eri kontatzen dizkiote euren kezkak. Esna-tzerakoan, aldiz, arazo guztiak desagertu egiten dira, usadio zahar batek esaten duen arabera.

Antzuolako hurrek, bere aldetik, larunbatean Maite Francok koordinatu duen ipuin ikuskizunarekin gozatzeko aukera izango dute. Ekitaldia udal liburutegian izango da, 18.00etan.>a.d.